

Egia al da antzinateko Egiptoko inude batek zaintzen zuen umea hiltzen bazitzaion beste haur batekin ordezkatzeko betebeharra zuela?

zer nola
ork?



Erantzuna:

Maddi Izaguirre Ayestarán

UPV/EHU. Universidad Paris 1-Panteón-Sorbona

Egia esan ezin dugu egoera hau guztiz orokortu, baina badirudi Egiptotik datozkigun papiroetako kontratuak diotenez, bada nahiko praktika ohikoa zen honako hau. Azken finean inude hauek, sinatzen zuten kontratuetan jartzen zituzten klausulak eta bete-beharrak, nahi ta nahi ez bete behar zituzten; eta hala jartzen

bazuen kontratuan, hori bete behar zuten. Kontua da, papiroen kopuru nahiko esanguratsu batek, aipatzen dituen inudeek zaintzen zituzten haurrak, hau espositoak zirela edo kutzako haurrak, hau da bere familiak abandonatu zituen haurrak, eta hirugarren pertsona batek, hau da kaleko pertsona batek jasotako haurrak, etorkizun batean haur hori esklabo bihurtzeko helburuarekin. Orduan, pertsona hauei interesatzen zitzaiena zen, haur hori inude hauek hezteak. Eradoskitzea eta hezteak, helburu bakar batekin hau da, lan egiteko gai izan zedin eta esklabu bihurtu zedin. Beraz, berdina zitzaion haur hori izan edo beste bat izan, behar zutena haur bat zen, etorkizunerako esklabu bat. Beraz, pentsatzekoa da familia oneko haurrak, inude batek eradoskitzen bazuen familia oneko haurra ez zela kontratuan horrelako klausularik egongo, izan ere, familia oneko gurasoei beraien haurra interesatzen zitzaion, ez beste edozein haur, bere familiako haurra baizik. Beraz, desberdintasun hau egitea oso garrantzitsua da, haur espositoak edo hiritar haurren artean, batzuk esklabu izateko etorkizuna izango zuten eta besteek berriz, ez.